

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Errepideak mantentzeko 95 milioi baino gehiago bideratuko ditu Gobernuak 2023. urtera arte

Aurten, Iruñea, Agoitz, Lizarra, Tafalla eta Tuterako zentrozen kontratuak berritzen dira eta horien aurrekontua %44 igo da

Asteazkena, 2019.eko martxoak 27

Nafarroako Gobernuak, gaurko bikluran Herri Lanetako zuzendari orokorrari baimena eman dio 2023 arte errepideen mantentze lanetarako urte anitzetako kontratuak sinatzeko. Aurrekontua 95.109.500 eurokoa da, %[44ko igoerarekin](#), eta aurten kontratuak berritzen dituzten bost mantentze zentroak hartzen ditu: Pamplona/Iruña, Aoiz/Agoitz, Estella-Lizarra, Tafalla eta Tuteran.

2018an, Irurtzun I eta II eta Mugairiko mantentze zentrozen kontratuak berri ziren.

Iruñeko mantentze zentroari dagokionean, aurrekontua 17.333.500 eurokoa da; Agoitzen 24.115.000 euro; Lizarran 16.582.000; Tafallan 17.635.000; eta Tuteran 19.444.000 euro.

Lanak

Ekintzen helburua Nafarroako errepideen segurtasuna eta erosotasuna bermatzea da. Jasotako neurrien artean neguko bideragarritasuna; bideen eta larrialdien arreta; errepide, errepidebazter, areka eta ertzen garbiketa; sastraka, ebaketa eta inausketa lanak; fabrikako lanen garbiketa eta drainatzeak; lur eta hormigoizko areten sortzea; drainatze lanen eraikitzea; eta bigunguneak konpondu eta fresaketa.

Gainera bideko zuloguneak betetzea; istripuen ondorioz kaltetutako seinaleak zuzentzea; aristen zutoinak aldaktzea; segurtasun barrera berriak ezartzea; aldizkako ekintzak (ezponda, mantentze harri-lubeta, pitzadurak konpontzea); ustegegi lanei babesa ematea; lursorua indartzea; seinale horizontalak eta bertikalak berritzea; balizak berritzea; errepideen itxieren berritzea; estrukturen konponketa handiak; zein ohiz kanpoko larrialdien arreta.